

AHOZKOTASUNA LANTZEKO PROIEKTUA

Izenburua: Euskarari, gatza eta piperra!

Egileak: Rober, M^a Mar, Itxaso eta Marlene

Justifikazioa

Gure eskola inguru erdaldunean dago eta ume gehienak erdaraz bizi dira eskolako esparrutik kanpo. Gai horren inguruan hausnartuta, Haur Hezkuntzako irakasleok ohartu gara ikasleek ez dutela behar beste hizkuntza-baliabide euskaraz egiteko hainbat eremutan: jolasean, lagunen arteko harremanetan, emozioak adieraztean, etab.

Egoera hori kontuan hartuta, proiektu bat egitea pentsatu dugu aurtengo Euskal Astean ahozketasuna jorratzeko. Proiektuaren xede nagusia da hurrei eta familiei baliabideak eskaintzea, euskararen presentzia areagotzeko. Horretarako, saiatuko gara hizkuntza modu ludiko eta naturalean lantzen: abestiak, dantzak, olgeta-kantak, sokasaltoan ibiltzeko kantak, zotz egiteko formulak, zirtoak, haserrea adierazteko formulak, eta abar. Proposamena Haur Hezkuntzako bigarren zikloko 3. kurtsoko ikasleei zuzenduta dago, nahiz eta, denborarekin, etapa horretako ikasle guztiei zabaltzeko asmoa izan.

Lan hau azaroaren 25ean hasiko dugu, eta abenduaren 3an amaituko, egun hori Euskararen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz. Hala ere, gure intentzioa da proiektuari iraupen luzeagoa ematea eta urte osoan erabiltzea.

Aipatu dugun moduan, gure helburua lortzeko, ezinbestekotzat jotzen dugu familien parte-hartzea. Hori dela eta, elkarlanean arituko gara, haiekin jarduerak eta materiala partekatuz.

Testuingurua

Arestian esan bezala, erdara da nagusi gure inguruan. Erdara da gure gelako ume gehienen ama-hizkuntza, familia askok euskaraz ere jakin arren. Gure eskola lerro bakarreko ikastetxea da; beraz, etapa ezberdinetako umeak elkarlanean aritzeko oso aproposa.

Proposatzen dugun proiektua 5 urteko ikasleei zuzenduta dago. Taldea 20 umek osatzen dute. Orokorrean, parte-hartzaileak eta aktiboak dira, eta gauza berriak ikasteko prest daude. Familiei dagokienez, eskolak proposatzen dituen ekintzen aldeko jarrera baikorra daukate. Hori aintzat hartuta, haiekin elkarlanean arituko gara oraingo honetan ere.

Denboralizazioa

Azaroaren 25etik abenduaren 3ra.

Arazo-egoera

Gelako talde bat sokasaltoan zebilen patioan. Jolaserako erabiltzen ari ziren abestia gaztelaniaz zen; euskaraz abesteko proposatzera hurbildu garenean, euskarazko abestirik ez zekitela erantzun dute.

Eginkizuna

Euskal tradizioan oinarritutako kanta, abesti, zirto, zotz egiteko formulak, etab. ikasi ondoren, bideo-bilduma grabatu, eta Euskararen Egunean eskolakoei eta familiei ikasitakoa erakutsi.

Eremuak

Dekretuak ezartzen dituen bi eremuetan oinarrutako gara:

1. Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua
2. Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren adierazpenaren eremua

Konpetentziak

Honako konpetentzia hauek landuko ditugu:

Oinarrizko zehar-konpetentziak:

- a) Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
- c) Elkarbizitzarako konpetentzia
- d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- e) Izaten ikasteko konpetentzia

Diziplinetako oinarrizko konpetentziak

- a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia
- b) Teknologiarako konpetentzia
- c) Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
- d) Arterako konpetentzia
- e) Konpetentzia motorra

Helburuak

1. Hurbileko gizarte-taldeko kultura-ekoizpenetara, balioetara eta bizimoduetara jarrera irekiz gerturatzea, errespetu eta balioespeneko jarrerak lantzeko.
2. Haurraren bizi-inguruneko kultura, tradizioak eta ohiturak ezagutzea eta haietan parte hartzea, haiekin gozatu eta nortasun-zeinu diren aldetik balioesteko.
3. Ikasgelako euskararen erabilera epe luzean hobetzeko oinarriak finkatzea.
4. Euskal kultura-tradiziozko testu batzuk ulertzea, azaltzea eta moldatzea, haiekiko interesa izateko, haiek balioesteko eta haiekin gozatzeko.
5. Ikus-entzunezkoen arte-produkzioetan parte hartzea, askotariko teknikak erabilia, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera jaso eta transmititzeko.
6. Komunikazio-tresnak eskuratzea eta horiez disfrutatzea, emozioak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko.
7. Talde txikian, gurasoei eginkizunaren berri emateko gonbidapena idaztea, irakurketa-idazketa lantzeko eta beste idazki mota bat ezagutzeko.

8. Talde handian zein banaka, ezagutzak bilatzea, probatzea eta haien gainean hausnartzea, ikasketa prozesuaren jabe izateko.

Edukiak

- Hurbileko kultura-ekoizpenetara, balioetara eta bizimoduetara hurbiltzea.
- Euskal ahozko tradizioa, kultura eta ohiturak ezagutzea: bertsoak, olgeta-kantak, zotz egiteko formulak, zirtoak, dantzak, etab.
- Euskararen erabilera sustatzea eta motibatzea, baliabide ludikoen bidez.
- Kultura-tradizioan oinarritutako testuak erabiltzea.
- Familien parte-hartzea sustatzea.
- Ikus-entzunezkoen produkzioetan, bideoen eta soinuen grabaketan parte hartzea.
- Emozioak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko komunikazio-tresnak eskuratzea: kantak, zirtoak, etab.
- Gonbit-idazkia lantzea.
- Ezagutzak bilatzea, probatzea eta haien gainean hausnartzea.

Jarduerak

Hasierako fasea:

1. Korroan, patioan suertatu den arazoari buruz hitz egin ondoren, pentsatu ea beste egoera batzuetan ere arazoak ditugun: zerrenda adostu eta erregistratu (idatzi).
2. Korroan, informazioa nola edo nondik har dezakegun hausnartu (liburutegian?, ordenagailuan?, musika irakasleari galdetuta?, familiari galdetuta?)
3. Familiei informazioa eskatu: materiala bildu.

Garapen fasea:

4. Umeek etxetik ekarri duten materiala aztertu, aukeratu eta sailkatu egingo dugu: abestiak, dantzak, olgeta-kantak, sokasaltoan ibiltzeko kantak, zotz egiteko formulak, zirtoak, haserrea adierazteko formulak, etab.
5. Senide euskaldun bat etorriko da eskolara, umeei olgeta-kantak erakustera. Jarduera hori patioan edo psikomotrizitate-gelan egingo dugu.
6. Auzoko dantza-taldeari bisita egingo diogu: euskal dantzak ikasiko ditugu, jantziak eta hainbat dantzatarako erabiltzen diren osagarriak ikusiko ditugu...
7. Gelako ume baten urtebetetzea baliatuz, bertsoak abestu eta ikasi egingo ditugu (3 bertso).
8. Arbel digitalean, *Tortoloxak* jolas interaktiboak eta Pirritx eta Porrotxen *Zatoz jolastera* materiala erabiliz, bestelako olgeta-kantak ikasiko ditugu.
9. Aurreko jarduerako erduei jarraituta, gure olgeta-kanten bilduma osatuko dugu.
10. Talde txikietan jarriko gara lan egiteko; taldeak osatzeko, zotz egiteko formulak erabiliko ditugu.
11. Gurasoentzako gonbidapenak idatziko dugu.

12. Umeak, talde txikietan daudela, grabatu egingo ditugu. Ondoren, grabatutakoa ikusi edota entzun egingo dugu, eta, emaitzarekin ados bagaude, bilduma prestatzen hasiko gara.
13. Irakaslearen laguntzaz, landutako materialaren bilduma egingo dugu IKTak erabiliz: bideoak, soinuaren grabazioa, edizioa, etab.

Komunikazio- eta aplikazio-fasea:

14. Euskararen Eguna ospatu eta ikasitakoa gainerako taldeekin partekatuko dugu.
15. Gurasoak gonbidatuko ditugu eskolako aretora, eta grabatutako bideoak ikusiko ditugu denok elkarrekin.

Transferentzia:

16. Talde handian, egindako prozesuari buruz hausnartuko dugu: zein izan zen gure abiapuntua (arazo-egoera), zer ekintza egin ditugun, zer ikasi dugun eta zertarako balio digun.
17. Talde handian, sentimenduak eta emozioak landuko ditugu, egun horietan nola sentitu diren galdetuta. Ekintza horrek bide emango digu beste unitate didaktiko bat lantzeko, beharrezkoa balitz.

Ebaluazio-adierazleak

- Landutako kultura-ekoizpenak, balioak eta bizimoduak balioesten ditu.
- Jorratutako bertso, olgeta-kanta, zotz egiteko formula, zirta eta dantza batzuk barneratu ditu eta errepikatzeko gai da.
- Euskararekiko interesa adierazten du.
- Kultura-tradizioan oinarritutako testuak arretaz entzuten ditu.
- Proposatutako ikus-entzunezkoen produkzioetan gogoz hartzen du parte.
- Zenbait komunikazio-tresna eskuratu ditu emozioak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko.
- Gai da talde txikian gonbidapen bat idazteko eta idazki horren egitura ezagutzeko.
- Hainbat informazio-iturri ezagutzen ditu eta bere ikasketa prozesuari buruz hausnartzen du.

Materiala

Landuko ditugun baliabide eta testuak eranskinetan zehaztuta daude.

Metodologia

Helburu nagusia kompetentziak garatzea denez, horiek lortzea izango du xede, bai unitate didaktiko honetan, bai egunerokotasunean proposatzen dugun metodologiak. Horretarako, aintzat hartu ditugu hainbat diziplinako ekarpenak: konstruktibismoa eta soziokonstruktibismoa, besteak beste. Oinarritzko diziplinak garatzeko, egoera errealak aintzat hartu behar dira eta benetako jarduerak proposatu, ezagutza eguneroko arazo

nagusiekin lotuz. Hori kontuan hartuta, gure proposamena arazo-egoera konkretu batean oinarritzen da, hots, jolas-orduan gertatutako egoera jakin batean.

Printzipio metodologikoei dagokienez, afektibitateak berebiziko garrantzia izango du. Izan ere, giro afektibo ona nagusi denean, ekintza eta elkarrekintza ugari gertatzen dira haurren taldean; bestela ere, ez da gatazka askorik sortzen haurren arteko harremanetan, eta ez da haien garapen pertsonala eragozten. Konfiantzako eta segurtasuneko testuinguru edo gune bat planifikatzea eta sortzea izango dugu egiteko garrantzitsuenetako bat.

Beste egiteko batzuk ere izango ditugu: ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekari, gidari edo laguntzaile izatea, eta egoera nahiz testuinguru horiek egoki sortzea garapen pertsonala eta soziala bideratzeko, arazo-egoerak ebazteko eta ingurunea ezagutu eta eraldatzeko, azken hori baita helburu nagusia, estrategia batzuk ematea ikasleek ohiturak aldatu ditzaten.

Bestalde, oinarritzko konpetentziak ganoraz landuko badira, haurrak gogoz parte hartu behar du ezagutzak bilatu, ikasi, probatu, haien gainean hausnartu, aplikatu eta komunikatzeko prozesuetan. Hori aurrera eramateko, ikasleek izango dute informazioa eta ezagutza bilatzeko ardura. Ikasketa-prozesua burutu eta gero, ikasitakoa bideo baten bidez komunikatuko dugu eta, ondoren, ikasitakoa beste egoera batzuetara transferituko dugu; ikasleak, egiten jakiteaz gain, zer egin duen jakin behar duelako.

Denboralizazioari dagokionez, arestian aipatu bezala, proposamena astebetean egiteko da, baina gure asmoa da ekintza luzatzea eta zabaltzea, behin emaitzak aztertuta eta beharrezko aldaketak edo egokitzapenak eginda.

Jarduerak aurrera eramateko, batez ere ikasgela erabiliko dugu, baina psikomotrizitate-gela eta patioa ere beharrezkoak izango dira momentu batzuetan. Horrez gain, eskolatik hurbil dagoen dantza-taldearen egoitzara joango gara bisita egitera.

Taldekatzea

Jardueraren arabera, talde handian, talde txikian edo banaka egingo dugu lan. Talde txikiak egiteko, heterogeneotasuna izango dugu irizpide.

Ebaluazioa

Zer ebaluatu? Konpetentzien garapena ebaluatuko dugu, horretarako unitatean zehaztu ditugun ebaluazio adierazleak kontuan hartuta. Horrez gain, unitate didaktikoa bera eta gure jarduna ere erabiliko ditugu.

Noiz ebaluatu? Ebaluazioak hiru aldi izango ditu: hasierakoa, prozesuan zeharrekoa eta amaierakoa. Hasierakoan, umeen aurrezagutzak aztertu eta erregistratu egingo ditugu. Proiektua aurrera doan heinean, jarduera bakoitzari dagokion adierazlea ebaluatuko dugu; azkenean, amaierako ebaluazioa egingo dugu.

Nork ebaluatu? Ikasleek, irakasleek eta familiekin ebaluatuko dute.

Nola ebaluatu? Ebaluazioa behaketa zuzen eta sistematikoaren bidez egingo dugu. Hainbat teknika erabiliko ditugu behatutakoa erregistratzeko: errubrikak, kontrol-

zerrendak eta eskala. Gainera, irakasleak egunero anekdota-bilduma beteko du, ohi bezala.

Baliabide didaktikoak

Eranskinetan azaltzen diren materialez gain, beste hauek ere erabiliko ditugu: Pirritx eta Porrotxen *Zatoz jolastera* diskoa, Urtxintxa proiektuko *Tortoloxak*...

Proiektua hobetzeko proposamenak

Astebeteko proiektua amaitzen dugunean, irakasleak elkartuko gara eta ebaluazioa egingo dugu. Honako hauek hartuko ditugu kontuan: emaitzak zein izan diren, ikasleak motibatzea eta inplikatzeko zer neurritan lortu den, familien parte-hartzea nolakoa izan den eta euskararen erabileran aldaketarik ikusten den. Behin hausnarketa eginda, proiektua luzatzea merezi ote duen erabakiko dugu, hori baita gure asmoa. Bestalde, proiektua gainerako maila eta etapetara zabaltzeko aukerarik ote dagoen ere eztabaidatuko dugu, horrela, ikastetxeko proiektu bilakatzeko.

ERANSKINAK:

ZOTZ EGITEKO FORMULAK:

1 TXINTXINA-MINTXINA SUTARA TXIKITENA GAZTAINA GORA GAZTAINA BEHERA TXUKUTU, TXAKUTU FUERA!	2 ATXA MITXA ZILARRA JOAN JOAN OILARRA ARDI BELTZA BILARA O PITXON, BIRIBILTON TXIN, TXAN, TXON
3 HARRAPAKETAN IZKUTAKETAN KIKIRIKETAN KIKURI BIKURI LAKIRIKON ZIRIKO BIRIKO LAKIRIKON KIKURI BIKURI LAKIRIKON TOKATZEN ZAIONARI HOR KONPON	4 MARTIN BONBIN ERREGE ETA SORGIN TIPULA ETA GATZA MARTIN, IPURDI LATZA

URTEBETETZERAKO BERTSOAK:

1. MILA KILO ZORION

Mila kilo zorion
dizugu eskaintzen
beste urte berri bat
duzulako hasten.
Baietz asmatu zenbat
dituzun betetzen
zergatik ez ditugu
txaloka kontatzen?

2. JAITS EZAZU

Mesedez jaits ezazu
burua hor goitik
eta ondo dakizu,
(*izena*), zergatik
tira egin nahi dizut
belarrietatik
mila kilo zorion
bihotz-bihotzetik

3- KANTARI DABIL BIRIGARROA

Kantari dabil birigarroa
kantari txantxangorria
gaur da, (*izena*), zure urtebetetzea
egun gogoragarria.
Mila zorion urte askoan
non dago zure irria,
orain barkatu, baina prestatu
ezkerreko belarria!

AHO-KORAPILOAK:

1. Zer ikusi ote duzu?
Ikusi dut aker okerrik,
adar makar okerrik.
Baina ez dut ikusi
akerreneko akerra bezain
aker-adar okerragorik
duen aker-adar okerrik.
2. Sei sorgin sasian,
solasaldi soilean,
sasi baten sarean,
solasaldi soilean,
sei sorgin sasian.
3. Beleak Berreagara
zerbait daroa:
badaroa,
berrea daroa,
baba errea
ahoan daroa.
4. Aitta ttunttun,
ama ttunttun,
ttunttun ere alaba.
Oro ttunttun izateko,
ttunttun behar dun senarra.
5. Risti-rasta,
risti-rasta,
risti-rastaka,
zorrotzarria
segan tarrastaka.
Risti-rasta,
risti-rasta,
risti-rasta-ristarria,
sega zorrotzen
zorrotzarria.
6. Rau, rau, rau,
rapataplau!
Danborrak kalean,
rau, rau, rau,
rapataplau,
plau, plau,
danborren danbarra
rapataplau!

ZIRTOAK:

- ❖ Bene-benetan, txakurra berbetan.
- ❖ Zer da? *La mujer del zerdo*, haren semea txerrikumea.
- ❖ Bestela, bestela... kaka-pastela!
- ❖ Kutxi, kutxi, Mari Lutxi! Koipe asko eta urdai gutxi!
- ❖ Gero arte, Bonaparte, eta jan tomate.

OLGETARAKO KANTAK:

1. ALA KUNKURRUN KUNKURRUNERA

Ala kunkurrin kunkurrinera
ala samurruen samurrunera
(izena) plaza barriko
buelta beste aldera

2. GOMA-JOLASA

Jendea ikusten dut hondartzan
neska-mutilak
eguzkia hartzen
pozik ibiltzen dira
eta ni bitartean
bakarrik

3. KANIKA TXIKIA

Kanika txiki bat dabil
saltoka eskutik eskura.
Nork ote du, nork ote du,
nork ote du nire kanika,
kanika, kanika, kanika!!!

4. HARRAPATZEKOAK

Oilo zahar, oilo zahar
txirinbonba mokoka.
Oilo zahar, oilo zahar
hemen naukazu txaloka.

5. SOKASALTOA

1. Saltoka-saltoka nabil ni gustura
salto eta salto bat sartu arte.
Sar dadila lker eta biok elkarrekin
ibiliko gara bat irten arte.
Eman ezazu buelta
eta irten zaitez.
Una dola
tela katola
zoaz kanpora!

3. Kantauri itsasoan
olatuak goraka
itsasontzi bat irten da
olatuen artean
hemendik hara
handik hona
hemendik hara
handik hona.

2. Saltoka-saltoka
nago ni gustura
salto ta salto
bat sartu arte.
Sar dadila (*izena*)
ta biok elkarrekin
salto ta salto
nekatu arte.

6. EUSKAL DANTZAK

ORPO PUNTA

Orpo punta orpo punta
aurrera eta itzulia.
Orpo punta orpo punta
aurrera eta itzulia.
Plis, plis, plas,
txaloka
jiraka eta biraka.
Plis, plis, plas,
txaloka
jiraka eta biraka.

PITX DANTZA (MUSIKA)

TXULALAI (MUSIKA)

ZAPATARI DANTZA (MUSIKA)